Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Organismo Autónomo Escuelas Infantiles
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa
Conde Oliveto, 4-2º izda.

31002 Pamplona -Iruña

Teléfono: 948 420098 Fax: 948 420099

Honako Estatutu hauek argitara eman ziren 1997ko abuztuaren 22ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta geroago aldatu ziren, NAOn 1998ko uztailaren 1ean eta 2008ko apirilaren 2an egindako argitalpenetan. Jarraian agertzen den testuak barne hartzen ditu aldaketak.

IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ESTATUTUAK

I. TITULUA
Izaera eta xedea

1. artikulua.- "Iruñeko Udaleko Haur Eskolak" Iruñeko Udalaren menpeko Erakunde Autonomoa da, administratiboa, eta berezko nortasun juridiko publikoa dauka Estatutu hauetan xedatzen diren zereginak garatzeko.

2. art.- Erakunde Autonomoaren xedea da Iruñeko Haur Eskolak sortzea, sustatzea, kudeatzea eta koordinatzea, Iruñean bizi eta derrigorrezko eskolatze-adinetik beherako haurrek bertara joateko aukera izan dezaten. Halaber, bertara joaten ahalko dira Iruñean bizi ez diren haurrak, baldin eta integratzeko premia bereziak badituzte eta Nafarroako Gobernuko Haur Eskoletako arduradunekin hitzarmena egin bada aurrez.

3. art.- Aipatu xedea betetze aldera, Erakunde Autonomoak honako zereginetara bideratuko du bere jarduna, betiere ahal duen neurrian:
a) Haur Eskolen beharrak ezagutzea, beti, dagokien plangintzarako oinarri izanen diren azterketa egokien bidez.

b) Jardunean dauden Eskolak eta sortzen ahal direnak mantentzea.
c) Eskolak sortzea edo kentzea.
d) Eskolei aholku ematea.
e) Eskolen funtzionamendua kontrolatu eta zaintzea, kontu administratiboez, instalazioez eta zerbitzuez bezainbatean.

4. art.- Erakunde Autonomoaren jarduna aipatu helburuekin bat etor dadin, honako zeregin hauek egiten ahalko ditu:
a) Edozein motako ondasunak erosi eta jabetzan eduki, horiek besterendu eta zergapetzea.
b) Ondarea eta bestelako pertsona fisiko zein juridikoek lagatako ondasunak administratzea.
c) Prezio publikoak jasotzea.
d) Jaraunspenak, ondareak eta dohaintzak onartzea; dirulaguntzak, sorospenak eta bestelako laguntzak eskuratzea erakunde publiko zein pribatuengandik, are pertsona fisikoengandik.
e) Edozein motako kontratu, hitzarmen eta lankidetza-akordioak izenpetzea.
f) Zerbitzua emateko behar diren langileak kontratatzea.
g) Aurrekontuak eta urteko kontuak prestatu eta hasiera batez onestea.

Organismo Autónomo Escuelas Infantiles
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa
Conde Oliveto, 4-2º izda.

31002 Pamplona -Iruña

Teléfono: 948 420098 Fax: 948 420099

h) Jarduketa judizial eta administratiboak gauzatzea.

5. art.- Erakunde Autonomoaren egoitza Oliveto Kondearen etorbideko 4.a izanen da, eta aldatzen ahalko da, betiere Iruñeko udal-mugartearen barruan eta Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako zuzendaritza-organoak horretarako erabakia hartu ostean.

6. art.- Erakunde Autonomoak iraupen zehaztugabea izanen du, baina Iruñeko Udalak hura desegitea erabakitzen ahalko du, edozein unetan.

II. TITULUA
Gobernu-organoak

7. art.- Erakunde Autonomoko gobernu-organoak honako hauek izanen dira:
-Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Gobernu Batzordea.
-Lehendakaria eta lehendakariordea.

8. art. 1.- Gobernu Batzordea Erakunde Autonomoaren zuzendaritza- eta administrazio-organoa da.
2.- Unean-unean Herritarren Aferen Batzordean edo, Udalaren antolamendua aldatuz gero, hezkuntzako eskumenak bere gain hartzen dituen batzordean ari diren zinegotziak izanen dira Gobernu Batzordeko kide. Nolanahi ere, ezin izanen dira Gobernu Batzordeko kide izan aurreko paragrafoan aipatutako Batzordeko partaideak diren zinegotziak, baldin eta, 6/2002 Alderdien Legean edo Zigor Kodean xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, geroago epaileek indargabetu, ilegalizatu edo jarduna bertan behera utzi dituen alderdi politikoetako edo hautes-taldeetako zerrendakideak badira.
3- Gobernu Batzordeko burua Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako lehendakaria izanen da.
4.- Idazkari-lanetan Udaleko idazkaria edo hark eskuordetutako legelari bat arituko da, eta bilkuren aktak jasoko ditu eta Udaleko Haur Eskoletako gobernu-organoen jarduketak zein erabakiak egiaztatuko.
5.- Gobernu Batzordeko bilkuretara joaten ahalko da, hitzarekin baina botorik gabe, lehendakariak egoki jotzen duen edonor, Erakunde Autonomoaren menpeko langilea izan zein ez, baldin eta gai-zerrendako puntu jakin baterako deia egiten badio.

9. art.- Honako hauek dira Gobernu Batzordearen eginkizunak:
Iruñeko Udaleko Haur Eskolak zuzendu eta administratzea.
Eskoletako ildo pedagogikoa ezartzea.
Plantillako langileei dagokien organigrama ezartzea.
Erakunde Autonomoaren eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolen beraien barne-araubideko erregelamendua onestea, familien eta bertako langileen parte-hartzea bultzatuta.

Kudeaketa operatibo eta ekonomikoaren memoria onestea.
Aurrekontua eta urteko kontuak aurrez onestea.
Prezio publikoen onespena proposatzea.

Organismo Autónomo Escuelas Infantiles
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa
Conde Oliveto, 4-2º izda.

31002 Pamplona -Iruña

Teléfono: 948 420098 Fax: 948 420099

Haur-eskola berriak sortzea edo daudenak kendu zein berregituratzea proposatzea.
Langileak kontratatzea.
Aurrekontuetako kreditu-transferentziak onestea.
Ikasleak onartzeko irizpideak zehaztea.
Mota orotako jarduketa judizialak abiatzea eta horietan agertzea.
Mota orotako ondasunak erosi zein saltzea; kredituak ituntzea eta dohaintza, ondareak eta jaraunspenak onartzea.
18.000 euro baino gehiagoko gastuak edo kasuan-kasuan Iruñeko Udalbatzak ezartzen duen kopurutik gorakoak baimendu eta xedatzea.
Oro har, Udal-esparruan Udalbatzari dagozkion eginkizun guztiak.

10. art. 1.-Gobernu Batzordeak ohiko bilkurak eginen ditu aurrez ezarritako datetan, eta gutxienez bilkura bat eginen du bi hilabetean behin.
2.-Gobernu Batzordeak bilkura bereziak eginen ditu lehendakariak bere ekimenez edo batzarkideen herenak (1/3) eskatuta erabaki hori hartzen duenean.
3.-Bilkura horien araubidean aplikatzekoak izanen dira unean-unean Udaleko Osoko Bilkurarako indarrean dauden arauak.

11. art.- Erakunde Autonomoko lehendakaritza alkate jaun/andre txit prestuari dagokio, eta berak hezkuntza arloko eskumenak dituen Batzordeko kideren bati eskuordetzen ahalko dio.

12. art.-. Honako hauek dira lehendakariaren funtzioak:
a) Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako ordezkaria izatea.
b) Gobernu Batzordeko bilkuretarako deia egitea, horietan buru aritzea eta bilkurak bertan behera uztea.
c) Gobernu Batzordeko erabakiak gauzatzea.
d) Jarduketa judizialak abiatzeko eta horietan agertzeko eskumena gauzatzea larrialdi-egoeretan, eta Gobernu Batzordeari horren berri ematea egiten den lehen bilkuran.
e) Zerbitzuaren ikuskaritza eta zuzendaritza gorena gauzatzea.
d) Erakundearen jarduketa eta erabakiak helarazteaz zein espedienteak zaintzeaz eta artxibatzeaz arduratuko diren langileak zehaztea.
g) 18.000 euro arteko gastuak baimendu eta xedatzea, edo, Udalbatzak kasu bakoitzerako xedatzen duen kopuruetarako, ordaintzeko betebeharrak aitortu eta likidatzea eta ordainketak agintzea.
h) Partikularrek zerbitzuaren truke ordaindu beharreko prezio publikoen likidazioak onestea.
i) Oro har, alkateari Udalean dagozkion gainerakoak.
13. art.- Alkate jaunak/andreak libreki izendatuko du Erakunde Autonomoko lehendakariordea, hezkuntza arloko eskumenak dituen Batzordeko kideen artean, eta lehendakaria ordeztuko du hura falta bada edo gaixo badago.

III. TITULUA
Ondasun eta baliabide ekonomikoak, eta aurrekontu eta kontuak

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Organismo Autónomo Escuelas Infantiles
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa
Conde Oliveto, 4-2º izda.

31002 Pamplona -Iruña

Teléfono: 948 420098 Fax: 948 420099

14. art.- Erakunde Autonomoaren ondarea honako hauek osatu dute:
a) Udalak atxikitzen dizkion ondasunak, kalifikazio juridiko arrunta mantenduko badute ere.
b) Iruñeko Udaleko Haur Eskolek legezko den beste edozein prozeduraren bidez eskuratzen dituzten bestelako ondasunak.

15. art.- Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako baliabideak honako hauek osatuko dituzte:
a) Bere ondarearen produktuak, aprobetxamenduak, emaitzak eta etekinak.
b) Udalak aurrekontuetan esleitzen dion ekarpena.
c) Edozein entitate publiko zein pribaturen eta partikularren dirulaguntzak eta ekarpenak.
d) Hitzartzen dituen mailegu eta kredituak.
e) Erabiltzaileek ordaintzen dituzten prezio publikoak.
f) Zuzenbidez ematen ahal zaizkion bestelakoak.

16. art.- Aurrekontuen proiektua lehendakariak eginen du, eta Gobernu Batzordeak onesten duenean alkate jaun/andre txit prestuari helaraziko zaio, Udalbatzak behin betiko onets dezan, urriaren lehena baino lehen.

17. art.-Kontuen proiektua, zeinari kudeaketa operatibo eta ekonomikoaren memoria erantsiko baitzaio, lehendakariak eginen du, eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Gobernu Batzordeari aurkeztuko zaio; onesten badu, alkate jaun/andre txit prestuari helaraziko dio Udalbatzak behin betiko onets dezan, martxoaren lehena baino lehen.

IV. TITULUA
Langileria

18. art.-Erakunde Autonomoak bere langileak izanen ditu, izan horiek funtzionarioak edo kontratupekoak, eta unean-unean Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileendako dagoen araudiari lotuko zaizkio.

19. art.- Erakunde Autonomoko lehendakariak langileen buru nagusiaren eskumenak izanen ditu.

20. art.- Urtero, Gobernu Batzordeak Iruñeko Udaleko Haur Eskolen zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa hasiera batez onetsiko ditu, eta alkate jan/andre txit prestuari helaraziko dio, Udalbatzak behin betiko onets dezan.

V. TITULUA
Udalak esku hartzeko dituen eskumenak

21. art.- Udalak beretzat gordetzen ditu honako funtzio hauek, Erakunde Autonomoari dagokionez:
a) Aurrekontua behin betiko onestea.
b) Urteko kontuak behin betiko onestea.

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Organismo Autónomo Escuelas Infantiles
Haur Eskolen Erakunde Autonomoa
Conde Oliveto, 4-2º izda.

31002 Pamplona -Iruña

Teléfono: 948 420098 Fax: 948 420099

c) Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa behin betiko onestea.
d) Erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak behin betiko onestea.
e) Aurretiazko baimena ematea ondasun higiezinak eskuratzeko, besterentzeko edo zergapetzeko.
f) Aurretiazko baimena ematea kredituak eta maileguak hitzartzeko.
g) Aurretiazko baimena ematea haur-eskola berriak sortzeko edo daudenak kendu zein berregituratzeko.
h) Pertsona fisiko zein juridikoekiko hitzarmen edo akordioak onestea, horien indarraldiak gaindituko badu unean uneko udalbatzaren agintaldia.

22. art.-Erakunde Autonomoak eta Udalak kontratu-programa bat sinatuko dute, non zedarrituko baitira lehenaren jarduketa-helburuak eta bigarrenaren ekarpenak.

23.art.- Estatutu hauen aldaketak Udalak egin beharko ditu, ofizioz edo Erakunde Autonomoko Gobernu Batzordeaak proposatuta.

VI. TITULUA
Araubide Juridikoa

24. art. 1.-Erakunde Autonomoko Lehendakariaren eta Gobernu Batzordeko egintzek amaiera emanen diote administrazio-bideari.
2.-Erakunde Autonomoko organoen ebazpenen aurka unean-unean Nafarroako Toki Entitateen egintzen aurka jar daitezen errekurtsoak jartzen ahalko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA
Estatutu hauek onestearekin batera indargabeturik geratuko dira 1984ko martxoaren 8an onetsitakoak.